

ERREPORTAJEA GUREAN BAI · MERKATARITZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA · KIROLAK EGOITZ MORARI
ELKARRIZKETA · BERBETAN JOSE MARI ULAZIA, GESTIO ESKOLAKO ZUZENDARI OHIA

BARREn


ASTEKARIA

Egoitz Mora

Espainiako judo txapeldun

"ETSIA DATORRENEAN ONGI HARTU, ETA DOANEAN BERE BIDETIK BIDALI"
(Jigoro Kano, judoaren asmatzailea)

VIII. KONTSEZIO
AZOKA



ABENDUAK 14

goizeko 9etatik eguerdiko 2etara

lletan txistorra, salda eta ardo banaketa doan



A

12etan dantza solteko ekitaldia

A



BaRREN urteurrena



Eta etorkizunerako, zer?

Aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu". Hala dio behintzat esaera zaharrak. Eta horretan jardun dugu aurreko bederatzita asteetan, 10 urteotan BARRENen bizi izandakoaren errepaso egiten, hain zuzen ere. Baina atzera begiratzea ondo dagoen arren, garbi daukagu ez dugula lehenean geratu nahi. Aurrera egin nahi dugu, eta, hamar urteotan ikusitakoa eta ikasitakoa bidelagun hartuta, gure begiak etorkizunari begira jarri ditugu.

Eta zer da ikusten duguna?

- elgoibarren.net web orria jarri nahi dugu martxan ahal dugun azkarren. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobeztatu nahi ditugu gure herrirako web orri bat prestatzeko.

- BARRENeko Estilo Liburua prestatzea da geroari begira jartzen garenean ikusten dugun beste erroka bat. Lanean hamar urte badaramazkigu ere, hamaika erabaki eta gauza dauzkagu oraindik ere hartzeko eta lotzeko. Ia bi urteko epean dena ondo definitzeko gauza izaten garen.

- Informazioa, elkarrizketak, erretratuak, aldizkariak, pilatzen ari zaizkigu! 10 urteko lanak arrastoa lagatzen du eta dena ganorazko artxibo batean jaso eta ordenatu nahi dugu.

- Halere, gure desafiorik handiena kalitatezko astekaria argitaratzea izango da. Ez gara astero BARREN argitaratzearekin konformatzen. Produktu interesgarria eta erakargarria egiten saiatuko gara aurrerantzean ere.

Oraingoz itzalak baino ez ditugu ikusten, baina gure esku dagoen guztia egingo dugu BARRENen etorkizunari argia emateko. Guk eta zuek, denok, ikusteko.



Alea jacta est?

Joan den ostegunean Sabin Intxaurreak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuak, 2002ko Ingurumen Adierazleen txostenaren aurkezpena egin zuen Bilboko Carlton Hotelean eta, txosten baten beharra izaten duten aztergai guztietan gertatzen den bezala, Ingurumen Adierazleen kasuan ere ondorio argiak ateratzea zaila dela ikusi ahal izan genuen.

Txostenaren datuen arabera ingurumen kalitatearen botila erdi beteta ikusi nahi dutenek gure airearen, uraren eta lurzorua kalitateak hobera egin dutela azpimarra lezakete. Botila erdi hutsik ikusi nahi dutenek, berriz, natur baliabideen kontsumoak, sortzen diren hondakinen kantitateak, berotegi efektua eragiten duten gasen isurpenek eta tokiko mugikortasunak erakutsi duten bilakaera txarrean ezkortasunerako arrazoiak aurki ditzakete,

Nik Sailburuaren aurkezpenean kezkatzeko arrazoiak aurkitu nituela aitortu behar dizuet. Hala ere, gehien kezkatu nindutenak ez ziren azken datu negatibo hauek izan, aurkezpenaren bukaeran botatako esaldi pare bat baizik. Hitzez hitz gogoratzen ez badituzte ere, honelako zerbait esan zuen Intxaurrea jaunak bere aurkezpenean: "Txosten hau urtero berrituko da. Beraz, hurrengo urteetan ikusi ahal izango dugu ea inongo hobekuntzarik gertatu den ala ez".

Ez dakit hitz horiek nola interpretatu behar diren. Intxaurrearen Sailak Garapen Jasangarriaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia kaleratu zuen aurtengo ekainean eta hura urrats garrantzitsua izan zen benetan. Hala ere, joan den osteguneko esaldi pare horretan gure agintarien estrategia Ingurumen Adierazleak argitaratzera mugatu behar denaren susmoa piztu zitzaidan.

Ingurumenaren kalitatea neurtzea beharrezkoa da baina ez da nahikoa. Ingurumen kalitateak hobera egin behar badu gure agintarien partaidetza aktiboarekin izango da. "Alea jacta est" esaterik ez dago. Etorkizunean argitaratuko diren Ingurumen Adierazleek gure ingurumen politikaren emaitzak adierazi beharko lituzkete. "Prestige" petroliountziaren kasuan Estatuko gobemuak egin bezala, haizeak nondik jotzen duen zai gelditu behar al gara? Espero dut ezetz.

Alberto Ansuategi

Kexak

11191

motz MOTZ 8

kiRoIAk 16

aGenda 20

Oharra

Datorren astean ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo alea, 428. alegia, Gabonetako ale berezia izango da eta abenduaren 20an izango duzue zuen etxeetan. Abenduaren 24an, berriz, BARRENen 10. urteurrena dela-eta prestatzen ari garen ale berezia izango duzue eskuarte.

Urruzunoren begi ezkutua Laga amesten



Azken aldian, norbanakoari bere ametsa lortzen laguntzen dioten telebista programek omen daukate arrakasta gehien.

Zapatuan, Amuriza eta Ferminekin "gaupasa" egin zuen jende guzti horrek, biziki amesten du. Bizi bizirik amesten du.

Imaginatzen al duzu, bertaratu zen ororen ametsa lortuko ligukeen programa bat?

Programa?

Zapatuan amesten genuen ametsa, sinplea da: **UTZ GAITZAZUE GAUZAK NAHI DOGUN MODUAN EGITEN! LAGA BIZITZEN! AMESTEN, GEU IZATEN!**

GEURE EUSKAL HERRI ASKIAN, LIBRE BIZI NAHI DOGU!!!

Amaia Urzelai Barrutia

ASTEKARIA

BaRRen

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Finnibarko Izarria

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldegi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILERAK Jasona Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAEHA ZAHARFIA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.03892 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKOIZARRA

Elgoiharko Udatak, Eusko Jandaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



41^{er} kutxa
zur est-e

1DANOBAT
NAQUINPS HERRAMIEHA

2% OIT
GRUPO DANOBAT

FATABTA



prezio-kalitatean
merkeena
zuk probatu eta gero esan!

IfISIIRTT
JATETXEA

EGUNERO ZABALIK

Ez dugu ixten

LAN EGUNETAN AFARIAK ENKARGUZ

JAI EGUNETAN ETA ASTEBURUETAN

MENU BEREZIAK edariak kanpo

12 euro

Astero bat eta ezberdina!!!!


Basarte Auzoa, 4 (Mintxeta inguruan)
Tel./faxes: 943 74 34 26

nux

Emakume batek esan digunez, Kalamua Kaleko espaloia oso labaina dago, eta euria egiten duenean jende asko erortzen da: "Kalamua Kaleko ileapaindegiaren aurrean, estoldak tapatzeko burnizko estalki borobilak daude, eta jende asko jausten da bertan, euria egiten duenean batez ere. Nire etxeko leihotik, sarritan ikusi izan dut jende nagusia lurrera erortzen, eta ezin dut jasan. Denbora ugari darama ingurune honek horrela, eta bada konpontzeko ordua".



Ikasle talde batek, Elgoihar Ikastolako guraso eta irakasle taldea txalotu nahi du, mendi irteerak antolatzen dituztelako: "azkenaldian mendi irteera ugari antolatu dituzte, eta oso ondo pasatzen dugu. Jarraitu dezatela horrela".



Herritar batek esan digunez, oso gaizki iruditzen zaio auzoetan Gabonetako argi bakarra jartzea: "Denok zerga berdinak ordaintzen ditugu, eta auzo guztietan argi hana jartzen dute, kalea argiz eta musikaz hornitzen duten bitartean. Pertsona asko etxetik atera ezinda dago, eta auzoetan bizi arren, Gabon giroa somatzeko eskubide berbera dauka".



GALDE

Zertarako ari dira hainbeste lorontzi jartzen herrian? Mutil batek esan digunez, lorontzi asko soberan daude, eta apurtzen direnean gainera, inork ez ditu konpontzen. Udalera jo dugu, eta esan digutenez, "herri barruan rotondak egiteko ez dago lekurik, eta lorontziak jartzea izan zen irtenbide onena. Bestalde, beharrezkoa denean, bertatik kentzeko aukera dago, adibidez, lasterketak daudenean. Espaloi gainetako lorontziak, apaingarri izateaz gain, autoek bertan ez aparkatzeko balio dute. Badakigu batzutan kamioi handiak pasatzerakoan puskatu egiten dituzte, baina brigadakoek berehala konpondu eta txukuntzen dituzte".



Barrak, Birrak eta Barreak



GUREAN BAI Elgoibar

GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektuko teknikaria



"Helburuak dendarb
berak jarriko ditu"

Itsaso Ezenarro

Zein behar ikusi zenuten proiektuc martxan jartzeko?

GUREAN BAI proiektua 96an jarri zen martxan. Elkarte eta entitateetara bideratu ziren lehenengo ahaleginak, eta proiektu haren emaitza onak ikusita, bigarren arloari ekitera goaz: merkataritzari, hain zuzen ere. Dударik gabe, oso esparru garrantzitsua da merkataritza, herritarrekin oso harreman estua duelako.

Zergatik hasi zarete dendeekin?

Lehentasunak jarri behar izan ditugu. Tabernak, autoeskolak... ere hor daude, baina momentuz dendeekin hasi gara, kopuru aldetik gehiengoa direlako, eta herritar guztiengana egunero iristen direlako.

Zein dira proiektuaren helburuak?

Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera indartzea, bai kanpora begira, eta baita dendaren barne funtzionamenduan ere.

Bete al dira hasierako asmoak?

Bai, erantzuna oso ona izan da: 186 establezimenduri aurkeztu diegu proiektua, eta 133 baiezko jaso ditugu. Oso erantzun ona da. Gainera, ez da pentsatu behar ezezkoa

eman duten guztiak euskararekiko jarrera negatiboa dutenik: ezezko asko negozioaren etorkizuna oso beltz ikusten duten dendarien eskutik etoni dira.

Zein lan egin duzue?

Behin proiektua idatzita, dendaz denda aurkeztea izan zen hurrengo lana. Arritxu Urbieta mendarotarrak lagundu zidan aurkezpen-lanetan. Lan gogorra da berez, baina dendariei esker, arinagoa suertatu zaigu. Egia esan, oso ondo hartu gaituzte, eta emaitza ezin hobekak lortu ditugu.

Zer izan da zailena?

Hainbeste establezimendu izateak zaildu egiten ditu gauzak. Horretaz aparte, hiru urterako proiektua idaztea ere ez da lan erraza. Inguruko herrietako esperientzietatik ikasiz, eta ilusioz jardunda, orain arte lan txukuna egin dugulakoan gaude.

Zein diri hemendik aurrera dituzuen helburuak?

Denda bakoitzaren hizkuntza egoera aztertu, eta hortik abiatuta, bakoitzaren neurriko plana diseinatuko dugu. Helburuak dendariak berak jarriko ditu, eta guk helburu horiek betetzeko behar duen laguntza eskainiko diogu. Azken batean, eragileon eta dendariaren artean adostutako plana izango da, elkarlanean oinarritutako plana.

GUREAN BAI! - MERKATARITZA Hitzarmen Proiektuaren aurkezpen publikoa joan zen asteartean izan zen. Elgoibarko establezimendu garrantzitsuenetako ordezkariak izan ziren bertan, 75 gutzira, eta guztiak sinatu zuten hitzarmen orokorra. Aurkezpenean Beñat Bilbao Elgoibarko Izarra Kul-

GUREAN BAI - MERKATARITZA Elgoibarko merkataritzan euskararen erabilera indartzeko hitzarmen-proiektua da. Elgoibarko Udalaren eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen ekimenez, joan zen uztailean jarri zuten martxan proiektua. Herriko 186 establezimendutan aurkeztu zuten eta jasotako emaitzak oso onak izan dira. 133 baiezko jaso dituzte, eta ahal den neurrian, euskararen erabilera indartzeko konpromisoa hartu dute dendariak. Ezezkoa eman dutenen artean, auzoetako denda txikiak izan dira gehienak. Itsaso

133 BAIIEZK

Albaitaritza	1
Altzariak	6
Argazki-dendak	3
Arma-denda	1
Arrandegiak	2
Arte-denda	1
Belar-dendak	2
Bidaia-agentziak	4
Bideo-denda	1
Bitxi-dendak	3
Brikolaje-denda	1
Burindegiak	2
Edari-banatzailleak	2
Edergintzak	2
Elektrizitate-denda	1
Elektronika-denda	1
Estankoa	1
Etzetresna elektrikoak	3
Farmaziak	4
Fruta-dendak	7
Gozotegiak	3
HarMegiak	10
Hipermerkatua	1
Ile-apaindegiak	5
Industria-hornigiak	1

dendetan ere euskaraz

tur Elkarteko presidentea, Guillermo Garate Elgoibarko alkatea, Mari Jose Estibaritz Txankakua Dendarien Elkarteko ordezkaria eta Iñaki Perurena egon ziren. Honekin batera, Garate jantzidendako Aintzane Garatek eta Dori harategiko Dori Lemusek beraien esperientzia kontatu zuten.

Ezenarro proiektuko teknikariak azaldu digunez, "batzuk mesfidantza apur bat erakutsi dute, baina ezezkoa eman duten gehienak, beren etorkizuna kolokan ikusten duten denda txikiak izan dira".

GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektua herriko estabiezimendu gehienek sinatu dute proiektua, eta mota guztietako dendak izan dira gainera.

Hemendik aurrera, establezimenduen diagnostia egingo da, banan-banan, hizkuntza egoera ezagutzeko, eta hortik abiatuta, bakoitzaren neurria egokitutako plana finkatuko da.

K SEKTOREKA

Informatika-dendak	2
Jantzi-dendak	12
Kafe-denda	1
Kirol-dendak	2
Leiho-denda	1
Liburu-dendak	2
Lurrin-dendak	3
Marko-dendak	2
Mertzeriak	2
Okindegiak	5
Opari-dendak	2
Optikak	2
Osagarriak	1
Osasun-zerbitzuak	3
Paper-denda	1
Parafarmazia	1
Pentsuak	1
Pinturak	1
Supermerkatuak	6
Merkatu Plazako taberna	1
Telefono-dendak	2
Tindategia	1
Urdaitegiak	4
Zapata-dendak	5
Txankakua	1

Iriondo Kirolak dendakoa

Zergatik sartu zarete GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektuan?

Itasok proiektua aurkeztu zigun eta oso interesgarria iruditxu jakun. Euskerian alde, edozer, edo behintzat gure esku dauana eitzeko prest gaude, eta dendari bezela, konpromiso hau hartu ein bihar dogula uste dot.

Zein behar ikusi zenuten proiektuari baietz esateko?

Proposau zizkigun gauza danak oso ondo iruditxu jakuzen, eta horregatik esan genion baietz. Gure helburua beti izan da ahal dogun guztia euskeraz eitzia, eta modu natural baten, gure dendan giro euskalduna sortzia nahi dogu.

Erabiltzen al duzu euskara bezeroekin?

Bai, lehenengo hitza beti euskeraz. Gainera kanpoko jende asko etortzen da, Mutriku edo Azkoitxi aldetik, eta hoiek ez dakite erderaz.

Dendara etortzen direnek, egiten al dute euskaraz?

Bai, nahiz eta euren eguneroko bizitzan euskera asko ez erabili, gure dendan euskeraz eitzxen dabe. Badaude pertsona batzuk, erdal giruan bizi dianak, eta pentsatzen naban sekula ez nitxuala euskeraz berbetan entzungo, eta horrek ere, gure dendan euskeraz eitzxen saiatzen dia. Ematen dau denda honetan euskeria erabiltzia gustatzen jakuela, eta neri oso ondo iruditzen jata.

Kartelak euskaraz jartzen al dituzue?

Normalian bai. Beherapenen kartelak, eta publizidadia ere euskeraz eitzxen saiatzen gera, baina batzutan badaude hitz teknikuak ez dakizkigunak zela euskeratu, eta gaizki ipini aurretik, dauden moduan lagatzia hobe da. Gurean Bai proiektuan barruan, euskeratze lanak eitzxen lagunduko digute, eta hori eskertzekua da. Dendako produktu eta materialen azalpen danak inglesezt edo erderaz etortzen dia, baina nik bezerueri esplikazivak euskeraz ematen diuet.

Aurrerantzean konpromiso honekin aurrera egiteko prest al zaudete?

Bai, denda bakoitzak bere tamainako plana eukiko dau, eta ahal doguna eitzxen saiatuko gera. Gurc dendan danok gera euskaldunak, eta Mari ere saiatzen da euskeraz eitzxen. Dana ulertzen dau, baina berba eitzia ez da erreza. Hala ere, gure dendan euskal girua da nagusi.

Ufalak ebitatzeko proiektua aurkeztu du Udalak

Sigman eta Merkatu Plazan dauden zubiak aldatu egingo dituzte

kerketa baten arabera Elgoibarko erdigunean ufalen arrisku handia dago. 825m³/seg.-ko ur emariarekin Santa Ana kalean, Merkatu Plazan eta Madalan Deba ibaiako urak gainez egingo luke.

Hori dela-eta Udalak proiektu bat egiteko eskatu zuen eta proiektuaren arabera hainbat obra beharrezkoak dira ufalen arriskua ebitatzeko. Melitongo zubiaren azpian dagoen presa bota egin behar da eta baita ibaia bideratzeko hormak altxatu ere.

Sigmako zubian gainezka egiteko kota 1,80 metrotik 1,40 metrora jaitsiko litzateke horrela eta Merkatu Plazan eta Madalan ufalen arriskua ebitatuko litzateke.



Ibaiko urak gainezka ez egiteko zutabe gabeko zubiak eraikiko dituzte.

Zubi berriak

Bestalde, Sigmako zubi aldatzeko asmoa dago. Honen ordez, altuera garaia goan, 39 metroko zubi egingo dute eta ibaiaren eskuineko aldean harrizko

horma bat eginez ufalen arriskua txikiagoa izango da aurrerantzean.

Merkatu plaza atzeko zubiaren ordez zutabe gabeko beste zubi bat eraikitzea da proiektu honek azaltzen duen beste proposamen bat. 36 metro luze eta zabalean bi metro izango dituen zubiak oraingo ordezkatuko du.

Honetaz gain, ibaiaren aldamenen arrantzaleen pasealekua eraikitze asmoa dute eta pasealeku hau proiektu honen barruan kokatuta dago.

Proiektuaren kostua 3.966.558,48 eurokoa da (659.979.799 pezeta). Eusko Jaurlaritzak lehiaketa publikoa egingo du lanak zeinek egin aukeratzeko eta 15 hilabeteko epea izango dute obrak amaitzeko.

100 lagun inguru elkartu ziren Plazan HIESAz hildako herritarrik omentzeko

Abenduaren leian Hiesaren Aurkako Eguna zela-eta, Errotatxo elkarteak hainbat ekitaldi antolatu zituen joan zen astean. Hiesaren Aurkako Egunean gaitzaz hildako herritarrei omenaldia egin zieten Plaza Handian. Ehun lagun inguru bildu ziren arkupeetan eta txalapartarien saioaren eta aurrekuaren atzetik, Errotatxoren izenean hainbat aldarrikapen egin zituzten. Besteak beste GIB, ezinduei pentsiorako duten aukera kentzen dien dekretua atzera botatzea, gaixoen erregistroa gelditzea eta Hiesaren inguruko informazioa zabaltzea.



Josu Lariz Buenos Airesen atxilotu dute

Azaroaren 22an Buenos Airesen atxilotu zuten Josu Lariz 45 urteko altzolarra Uruguaitik kanporatua izan ostean. Ustezko ETako kideari banda armatuko kidea izatea eta polizia patruila baten aurkako atentatua egin izana leporatu dizkiote.

Espainiak jadanik hasi ditu Larizen extradizioa eskatzeko tramiteak. Bestalde, Askatasunak jakinarazi nahi du Fernando Bert kartzelaz aldatu dutela, beraz, norbaitek idatzi nahi izanez gero hau da helbidea: Maison d'arret det yvelines, Fernando Bert Arretxea 64306/5 Bis Rue Alexandre Tureault, 78395 Bois d'Arcy.




Elkartasun denda Errege bezperara arte egongo da zabalik

Parrokiako Misio Taldeak Gobernu Kanpoko Coprodeli Erakundearekin batera elkartasun denda ireki du Errosario kalean. Urtarrilaren 5era bitartean egongo da zabalik eta Misio Taldeko kideez gain, hainbat katekista eta laguntzaile arituko dira dendari lanetan. Artisau lanak, arropa, kafea, kakaoa... salduz ateratzen duten dirua misiolari baten bitartez Perura bidaliko dute, bertatik ekarritakoa baita dendan duten materiala. Coprodelik Parrokiako Misio Taldeak 7 urtetan denda jarritz egindako lana eskertu du. Denda astegunetan goiz eta arratsaldez irekita egongo da eta larunbatetan goizez. Produktuak erosteaz gain, misiolariari buruzko bideoak ere ikusi ahal izango dira elkartasun dendan.



Urtea amaitu aurretik sarean izango da web orrialdea

Elgoibarko Udalak web orrialdea izango du aurki www.elgoibar.org helbidean. Bertan herriari buruzko informazioa (datuak, historia, jaiak, auzoak, gastronomia, pertsonaiak...) eta Elgoibar hain ezaguna egin duen Makina Erremintaren ingurukoa (industrialdeak, enpresak, AFM, IMH, Makina Erremintaren Museoa) aurkitu ahal izango da. Herriko talde eta elkarteek ere izango dute lekurik web orri honetan. Udaletik deialdia egin dute bertan agertu nahi eta oraindik informaziorik ez duten taldeentzat. Hauek, 627 23 54 48 telefonora deitu eta Jabi Leonengatik galdetu beharko dute. Urte amaierarako web orria sarean izatea da Udalaren asmoa eta informazioa eguneratu egingo dutela adierazi digute. Jabi Leon elgoibartarra arduratu da web orria prestatzeaz eta eskerrak eman nahi dizkie elkarte, talde, enpresa eta bereziki Udaleko Kultura eta Euskara Sailetakoz zein BARREneko langileei.



Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen Goirizelaia eta alabariaren hitzaldian

Astebeteko atzerapenak ez zituen atzera bota elgoibartarrak eta zain egon ostean, jende asko azaldu zen Oinarrizko Eskubideen Aldeko Taldeak antolatutako hitzaldira. Jone Goirizelaia Sozialista Abertzaleak taldeko kideak eta Emilio Olabarria EAJ-PNVko legebiltzarkideak Garzonen autoak eta alderdi politikoen legea izan zituzten mintzagai hurrenez hurren. Kultur Etxeko hitzaldi gela bete zutenek amaieran galderak egiteko aukera izan zuten eta bildutako artean eztabaida piztu zuten aztertutako gaiak.

Elgoibar Gipuzkoako 17. herri aberatsena da

2000. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren aitortpenaren diru sarreraren zerranda kontuan hartuz, Gipuzkoako Ogasun Sailak hainbat datu kaleratu ditu. Datu horien arabera Gipuzkoako 53 herrietatik Elgoibar 17. postuan legoke aberastasunari dagokionez. Gipuzkoako diru sarreraren batz bestekoa 15.356 eurokoa da eta elgoibartarra goitik dago, 15.723 eurotan, hain zuzen ere. Debabarrena laugarren inguru aberatsena da Gipuzkoan eta aurretik ditu Donostia, Debagoiena eta Urola Kosta hurrenez hurren.

Gurutze Mugerzak eta Pakita Lizarritugik irabazi dute Merkatu Plazako zozketako saria

Argazkian agertzen diren bi emakumeak zorteko izan dira. Merkatu Plazak azaroan egindako zozketan bi lagunentzako afari bana irabazi dute. Gurutze Mugerza eta Pakita Lizarritugi nahi duten lagunarekin joango dira Gabi jatexera afaltzera. Bestalde, Merkatu Plazako dendariak gogorarazi nahi dute abenduan 60 euroko 4 txartel zozketatuko dituzte bezeroen artean.



Aste honetako euri jasaren ondorioz Deba ibaia gainezka egiteko zorian izan da URAK ZURE ETXEA HARRAPATUKO BALU, ZER SALBATUKO ZENUKE LEHENDABIZI?



ASIER PEREZ

12 urte, ikaslea

Nire ama, bera da inportanteena. Berak egiten du dena etxean, eta ama gabe ez nuke jakingo zer egin. Ezingo ginateteke bizi ama gabe.

52 urte, torneroa

Korrika alde egingo nuke. Denbora izanez gero, dokumentazioa salbatzen saiatuko nintzateke, bestela papeleo guztia egiteak lan handia dauka. Baina lehenengo gauza, nere burua salbatzea litzateke.



101 IMORME7

13 urte, ikaslea

Nere familixia. Ordenatoria ere inportantia da, baina familixia gehixo. Gauza materialak gero ere erosi leikez. Ez dot uste ufalak egongo dianik, eurixa geratuko da.

24 urte, ikaslea

Argazkixak salbauko nitxuzke. Txikitxako oroitzapenak, oporretakuak edo beste edozein lekutakuak dia, eta galduz gero, ez genuke ezer eukiko. Familixia inportantia da, baina badake bakarrik salbatzeko gaitasuna.



63 urte, etxeoandrea

Gainontzekoak salbatzeko, lehenengo ni neu salbatuko nintzateke. Euri asko egin du, baina ez dut uste ufalik egongo denik. Larunbatean alaba ezkontzen da, eta eguraldi ona egitea espero dut.

30 urte, langabetua

Senarra etxian egongo balitz, bera salbauko nuke. bestela nere ezkontza eguneko argazki albuna, oroitzapen politxa da-ta. Euri asko ein dau, baina erreikia asko zabaldua dao, ta espero dot ufalik ez egotia.



iewiconlq.* CW

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

iriondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

AZAROA

Atal honetan zuen seme alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

JAIOTAKOAK



Enara Munin Ansola
Azaroak 8
Jesus Maria eta Maria
Jesus



Borja Azpilikueta
Garcia
Azaroak 19
Gorka eta Marta



Ainhoa Gomez Beitia
Azaroak 20
Fidel eta Ane



Adriana Arrillaga
Zapparoli
Azaroak 6
Eduardo eta Esmeralda



Galder Zabala
Rementeria
Azaroak 29
Jon eta Alazne



Eider Etura Vicente
Azaroak 1
Josu eta Pili



Jon Mugika Azpeleta
Azaroak 29
Josu eta Maria Isabel

HILDAKOAK

Maria Iriondo Bergaretxe,
86 urte, azaroak 2
Angela Arizaga,
88 urte, azaroak 2
Juan Jose Oruesagasti,
86 urte, azaroak 3
Tomas Peña Briz,
77 urte, azaroak 17
Sabina Muguruza Etxeberria,
86 urte, azaroak 20

UKONTZAK


Joseba Manzanos Igual eta
Amaia Ansola Suinaga
azaroak 2

ETXE BERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



Jose Mari Ulaziaz Gestio Eskolako Zuzendaritza utzi du. 10 urtez proiektuari tiratu ostean, erretiratzeko unea iritsi zaiola azaldu digu. Gestio Eskolak Mondragon Unibertsitatearekin bat egin du, eta biek elkarlanean, Lizentziatura berri bat jarri dute martxan. Jose Mari Ulaziaz esan digunez, proiektu berri honetako puntu batzuekin ez da identifikatua sentitu, eta dimisioa aurkeztu du. Aurrerantzean, Susana Azpilikuetak beteko ditu zuzendari lanak, gestio taldearen laguntzaz.

"Proiektu berriko puntu batzuekin ez naizelako identifikatzen dimititu dut"

• Zergatik aurkeztu duzu dimisioa?

Titulazioaren homologazioaren arazoa geneukan hasieratik gainditzeko, eta ahalegindu arren, ez dugu lortu. Ikasturte honetan, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean, proiektu berri bat jarri dugu martxan, titulazioaren arazoa konpontzeko. Hala ere, hainbat punturekin ez naiz identifikatua sentitu, zerbait gehiago espero nuen, eta inor engainatu nahi ez dudanez, nire dimisioa aurkeztu nuen.

• Zein egoeratan daude Gestio Eskolako ikasle ohiak?

Azken bi urteotan lan handia egin dugu Mondragon Unibertsitatearekin gure ikasle ohientzat irtenbidea bilatzeko. Gestio Eskolan lortutako titulazioa konbalidatzeko bidea lortu nahi genuen, baina ezinezkoa izan da. Hala ere, MUko ziurtagiri bat izango dute, eta MUREn postgradu edo master guztietan parte hartu ahal izango dute. Beraz, duela urtebete baino hobeto gaude.

• Mondragon Unibertsitatearekin elkartuta, nola aldatuko da Gestio Eskola?

Gure ikasketa plana berezia zen. Lau urtekoa zen, espezializazio gabea, ikuspegi orokor eta zabala eskaintzen genuen. Kultura gaiak, gestiogintzarako teknikak eta batez ere, pertsonen jarrerari ematen genion garrantzia. Proiektu berri honetan, batzuk mantentzen dira, baina asko aldatu dira. Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritzan Lizentziatura ikasketak eskaintzen ditugu orain. Bost urteko iraupena izango dute. Lehenengo bi urteak komunak izango dira, ondorengo bietan espezializazioa aukeratuko du ikasle bakoitzak, eta azkenengo urtean enpresa proiektua

gingo dute. Orain arte Marketing eta Finantza arloko espezializazioa eskaintzen zen, baina aurtan, Antolamendu Kudeaketan espezializatzeko aukera ere izango dute, Gestio Eskolaren ildo jarraituz. Lehenengo zikloa Elgoibarren egingo dute, eta bigarrena Oñatin. Hala ere, enpresa proiektua egitera, inguru honetara bueltatuko dira.

• Zer eskaini dio Gestio Eskolak 10 urte hauetan euskal gizarteari?

Erabat sinestuz eta ilusio handiz eginiko proiektua, erakutsi duguna aplikatzen ahalegindutako proiektua.

Eraitza oso onak jaso ditugu, akademikoki, lanbideratze munduan, eta batez ere, kalitatearen errekonozimendua. Duela bi urte "zilarrezko Q" delakoa jaso genuen, eta aurtan Euskal Herri mailan kalitateari dagokionean, sari garrantzitsuen

eman digute, hau da, "urrezko Q"-a. Ez da kasualitatea, egingako lanaren ondorioa, baizik.

• Zein egitura edo izaera izango du aurrerantzean Gestio Eskolak?

Gestio Eskola izenarekin jarraitzen du, Patronatu bat daukagu eta hor hitzartuta dauzkagun proiektuen barruan, aktibitate bakarra daukagu MUREkin. Gestio Eskolak bere barnean, beste aktibitate batzuk ere badauzka, enpresetara ematen diren kontsultoria zerbitzuak, esate baterako.

• Zein dira hemendik aurrerako helburuak?

Lehenengo proiektua sendotu behar dugu. Hasi berriak gara, eta ziklo guztia bete arte, bost urte pasatu behar dira. Proiektu berri eta desberdin bat sendotzea da helburu nagusia.

"Ez dugu Gestio Eskolako titulazioa konbalidatzerik lortu"

JOSE MARI ULAZIA

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
6 Ibañez	Ibañez
7 Yudego	Yudego
8 Yudego	Yudego
9 Zabaleta	Zabaleta
10 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
11 Ibañez	Ibañez
12 Bidasolo	Bidasolo
13 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Zabaleta

FARMAZIAK
 ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
 FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84
 *eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA
6 barixakul Eizagirre
8 igandea Fotero

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO
 Egutero
 Donostia ArmAna 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
 Egutero
 Bilbo 06:00 7.00... 20.00
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
 * jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

Eusko Tren Aulons tic

MENDARO-ELGOIBAR
 Egutero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
 Astegunetan
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
 Jaiegunetan
 Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

PESA AUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

EIBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

ELBAR-AVEITIA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

MUTRIKU-EIBAR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

AZPEITIA-EIBAR

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lotteko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel 902 101 210.

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anommoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaleak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32

Insitutua

Arre iturri	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19

Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 22
Gara	943 31 69 99



Unai Iturriaga



Sustrai Colina



Xabier Silveira



Amets Arzallus

Bertso saioa Herriko Antioklan

Abenduak 20, ostirala

Gaueko 22:00etan

Antolatzailea



Laguntzailea



Elgoibarko Udala



Gaijartzailea: Karlos Aizpurua

Abenduaren 19tik urtarrilaren 6r



Laguntzaileak

- LANBROA
- IRIONDO
- LOJANTZI
- UDABERRI
- IRATXO
- ORAIKO
- TXARRIDUNA
- MALAPE
- TRUK
- PILON
- KAIA

Antolatzaileak:



Elgoibarko Udala

Kazetari eta perkusio tailerrak, PINera irteera eta Neguleku irekiak Gabonetan

Atxutxiamaiak eta Gaz-T Aisialdi Taldeek hainbat ekintza antolatu dituzte

Elgoibarko haur eta gaztetxoek ez dute aspertzeko aitzakiarik izango datozen Gabon jaietan. Atxutxiamaiak eta Gaz-T Aisialdi taldeek eskaintza anitza eta dibertigarria prestatu dute. Gauzak horrela, 3 ikastaro izango dira aukeran: perkusio tailerra, materiala sortzeko tailerra eta BARRENeK kazetari tailerra. Perkusio tailerra eta materiala sortze tailerra DBH 1., 2., 3. eta 4. mailako gazteei zuzenduta daude eta izena emateko azken eguna abenduaren 13a da. Perkusio ikastaroa abenduaren 20, 27 eta urtarrilaren 3an izango da eta 20 euroko kostua izango du. Materiala sortzeko tailerra, berriz, urtarrilaren 2, 3 eta 4an izango da eta dohanekoa da. Bestetik, BARREN-eko kazetari tailerra abenduaren 30ean izango da. Bertan, entrebistak eta argazkiak egiten ikasiko dute kazetari gazteek, eta egindako lanak BARRENen publikatuko ditugu. Lehen



Aurten ere Bilboko PIN parkera joateko aukera izango dute gaztetxoek.

Hezkuntzako 4., 5., eta 6. mailakoentzat da eta plazak mugatuak direnez, abenduaren 13a baino lehen komeni da izena ematea.

PINera irteera

Urtero legez Bilboko PIN edo Gabonetako haurren parkera irteera izango da. DBHko ikasleak abenduaren



30ean, astelehenean, joango dira Gaz-T taldearekin. Prezioa 10 eurotakoa da eta goizeko 9:45ean aterako dira Tren Geltokitik. Lehen Hezkuntzakoak, berriz, abenduaren 27an joango dira B ilbora Atxutxiamaiarekin.

Neguleku irekiak

Azkenik, Neguleku irekiak izango dituzte aukeran gazte elgoibartarrek. Abenduaren 23, 26, 27, 30, 31 eta urtarrilaren 2 eta 3an izango dira Elgoibarren. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailako haurrei zuzenduta daude. Ordutegia 10:00etatik 13:00etara izango da eta prezioa 24 eurokoa. Izena emateko azken eguna abenduaren 13a da. Irteera edo tailer hauetakoren baten parte hartu edo informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Izarra Elkartera jo: 943 74 16 26. e-posta: atxutxiamaiak@elgoibarkoicarra.com

Gabonetako zikloa antolatu du Ongarrik Udalarekin eta tabernarien gremioarekin

Nobedade moduan, bi film gaueko 00:30ean izango dira

Ongarri Zine Klubak 7 pelikula eskainiko ditu abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra bitartean (biak barne). Tabernarien gremioarekin eta Udalarekin elkarlanean antolatutako ziklo baten barnean kokatzen dira pelikulok. "Nomadas del viento" dokumental frantsesak estreinatuko du zikloa abenduaren 19an, ostegunean. Abenduaren 21, 22 eta 23an "Insomnio" film amerikarraren txanda izango da. Abenduaren 25ean eta 26an "La boda del Monzon" pelikula indiarrek hartuko dio txanda. "Lugares Comunes" Donostiako zinemaldian saritutako pelikula argentinarrek emango dio amaiera urteari, abenduaren 28, 29 eta 30ean.

"Deliciosa Martha" filmak, berriz, urteari ongi-etorria emateko ohorea izango du urtarrilaren lehen eta 3an. Jatetxe bateko sukaldaria den emakume baten inguruko amodiozko istorioa da. Urtarrilaren 2an "Millennium Manbo" film taiwandarraren txanda izango da. Egungo taiwandar gazteen bizimodua isladatzen du. Azkenik, urtarrilaren 4, 5 eta 6an Matt Damon protagonista duen "El caso Bourne" pelikula pantailaratuko da. Berrikuntza gisa, abenduaren 26an ("La boda del Monzon") eta urtarrilaren 2an ("Millennium Manbo") eskainiko diren filmak gaueko 00:30etatik aurrera ikusi ahal izango dira ohiko ordutegiez aparte.



EGOITZ MORA, JUDOKA

"Judoan noraino iristeko gai naizen jakin nahi dut"

Judoa bere bizitzaren parte bat dela dio Egoitz Mora 20 urteko elgoi-bartarrak. Pentsa, oinez ere tatami baten ganean ikasi zuela gogorazten du ia-ia. Urteak pasa dira eta mutil puska honek (186 zm eta 87 kilo) hainbat lekutan erakutsi ditu judorako dituen dohainak. Azkena 23 urtez azpiko Orenseko Espainiako Judo Txapelketan. Ez da irabazi duen txapelketa bakarra izan, ordea, 18 urtez azpiko Espainiako txapeldun izana da behin, txapeldunorde birritan eta 3 aldiz lortu du brontzezko domina. Euskadiko txapelketak, berriz, dozenatik gora bazi ditu. Ez dio mugarik jartzen bere buruari, judoan noraino ailegatzeko gai den jakin nahi du.



Zenhat entrenatu L. la Espainiako judo txapeldun izateko Astean hiru bider joaten naiz Usurbilera eta beste egunetan pesak egiten ditut, Ia hiru orduko entrenamendu gorrak izaten dira.

Bete al dituzu aurten 7enituen helburuak? Denboraldia hasi aurretik helburuak paper batean idazteko eskatu zigun entrenatzaileak. 23 urtez azpiko Espainiako txapeldun izatea eta senior mailako txapelketaren batean hirugarren postuagatik borrokatzea gustatuko litzaidakeela idatzi nuen. Helburuen araberrako prestaketa jarraitu dugu eta lehen zatia behintzat lortu dugu.

Zein ohitura ditu aurretik? Oso superstizioso naiz. Txapelketa on bat egiten badut adibidez, hurrengoan arropa berdinak erabiltzen ditut. Berotzeko erabiltzen ditudan zapatillekin hirugarren postua lortu nuen 97ko Melillako txapelketan eta txapelketetarako bakarrik erabiltzen ditut. Sudaderak, kamisetak, galtzerdiak... suertea ematen didatenak janzten ditut.

Zer lortu behar da judo konbate bat irabazteko? Teknika eta giltza asko daude, baina helburua bakarra da; aurkariak bizkarrarekin lurra ikutzea. Ipurdiz jauzten bada, edo albozka nahiz bizkarraren zati batek bakarrik ikutzen badu lurra, berriz, puntuak irabazten dira,

baina ez dira konbatea irabazteko nahikoa.

Zein da judoaren esentzia? Aurkakoaren indarra aprobetxatuz lurrera botatzea. Gaur egun, zuzenean bestearengana joateko tendentzia da nagusi.

Kirola haino zerbait llehiago al da judoa zuretzat? Bai, nere bizitzako parte bat da. Mundua ezagutzen lagundu dit eta baita lagun berriak egiten ere. Tatami batean

"Joku olinpikoak edozein kirolariren ametsa dira"

ikasi dudala oinez esan dezaket. Hobby bat da niretzat, baina noraino iristeko kapaz naizen jakitea nahi dut. Ez dut nahi 40 urterekin atzera begiratu eta judoan jarraitu izan banu noraino iritsiko ote nintzakeen zalantzarik izaterik. Hala ere, argi daukat judotik bizitzea oso zaila dela eta horregatik ari naiz ikasten eta etorkizunerako prestatzen.

Zein izango litzateke zure ametsa? Momentuz, senior mailako Espainiako Txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake eta baita Europako Txapelketan parte hartzea ere.

Ikusten al duzu zure 200-1ko Joku Olinpikoetan? Edozein kirolariren ametsa da joku olinpikoetan parte hartzea, baina oso zaila da. Europako txapelketetan aritu eta oso emaitza onak lortu beharko nituzke, baina horretara ailegatzea ere oso zaila da. Gainera, Atenaseko joku olinpikoak gertuegi daude. Olinpiada batzutura joateko judoka batentzat adinik onena 26 urte direla esaten dute. Beraz, 26 urte ditudanean Pekineko joku olinpikoak tokatzen zaizkit parez-pare.

Zein oso kompetitiboa naiz. Galtzea ez zait batere gustatzen eta Tatamian nagoenean oso agresiboa naiz, beti aurrera egiten dut.

Eta zertan daukazu hobetu beharra? Alde psikologikoan. Batzutan ez dut nere aukeretan sinisten eta gauzak egiteke lagatzen ditut. Nire buruarengan konfidantza gehiago eduki beharko nuke.

Behai iltza jasotzen al du judoak Jende askok praktikatzen du judoa, baina diru-laguntzei dagokionez kirol minoritarioa da. Judo Federazioak txapelketetara joateko bidaiak eta egonaldiak ordaintzen dizkigu, baina beste gastu asko daude. Kirolgi fundazioak ezinbesteko dirulaguntza eskaintzen dit. Lojantzi tabernak eta Arfi informatikak ere laguntzen naute.

edizioetako 4 txapeldunek hartuko dute parte XII, mazioarteko Xake Txapoilletan

Abenduaren 12tik 20ra jokatu dira partidak Kultur Etxean



Iuzuzko partaidetza izango du aurten ere **XII**. Nazioarteko Xake Txapelketak. Yugoslavia, Georgia, Azerbaiayan, Errusia, Espainia eta Euskadiko 10 xakelari arituko dira nor baino nor. Hauetatik lauk, Elizbar Ubilabak, Felix Izetak, Mario Gomezek eta Oleg Koorneevек badakite Elgoibarren irabaztea zer den. Maisu handi maila daukatenak ere lau dira. Elizbar Ubilava georgiarra da ELO puntuaziorik altuena duena 2552 punturekin. Anand xakelari indiar apartaren entrenatzailea da eta "Peon de Rey" aldizkariko zuzendariordea. Aurten bigarren egin zuen La Puebla de Montalbaneko Nazioarteko torneoan. Oleg Korneevек ere 2551 puntu ditu. Azken bi urteetako txapelduna da eta denboraldi

aparta egiten ari da aurten. Coria del Rio, Aceimar, Caceres, Pulianas eta Durangon lortu ditu garaipenak orain arte. Feliz Izeta maisu handia (2476 puntu), berriz, egungo Euskadiko txapelduna da. Azer Mirzoev da maisu handi maila duen laugarren xakelaria (2522 puntu). Trevias, Poio eta Banyoleseko torneoak irabazi ditu aurten azerbaiandarrak. Gainontzeko xakelariak nazioarteko maisu maila dute, baina garaipenaren bila buru belarri saiatuko dira. Iaz, adibidez, Santi Gonzalez gazte bilbotarra sailkatu zen bigarren postuan txapelketa zoragarria jokatu ostean. Xake partidak egunero jokatu dira abenduaren 12tik 20ra bitartean 16:00etatik 22:00etara Kultur Etxean.

Elgoibarko benjamin eta alebin mailako igerilariak, denboraldiko lehen norgehiagoka izan zuten pasa den azaroaren 29an, Azpeitiako igerilekuan. Honako hauek izan ziren Elgoibarko Igeriketa taldea ordezkatu zuten igerilari elgoibartarrak: Alba zangitu, Jone Larranaga, Alejandra Pascual, Josu Espilla, Alazne Martinez, Jagoba

Egaña, Ainhoa Agirre, Eneritz Aizpitarte, Beatriz Alvarez eta Aitor Etxeberria. Benjaminek 50 metro Krol estiloko frogan hartu zuten parte eta alebinek 100 metro bular estilokoan. Bukaeran 8x25 metroko errelebu mixtoan hartu zuten parte bizkar estiloan. Fin aritu ziren igerilariak eta denbora bikainak egin zituzten guztiek.

EMAITZAK

Elgoibar 1— Ordizia **3** (1. erreg.)
Elgoibar 1— Oiartzun **2** (Jub.)
Elgoibar 0— Aitzgorri **3** (kad.)
Elgoibar 3 – Bergara 0 (Neskak)
Mundarro 0 – **Haundi 1** (Pref.)
Aloña-Mendi 0 – Elgoibar **2** (Inf.)
Idiazabal **5** - Pedrusko 1 (1. erreg.)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Portu/Txurruka **9** – Galparsoro/Sorondo **22** (Igeldo)
Lagunak **3** – Euskal Jolas **18** (Inf.)
Lagunak **18** - Zumaia **16** (Inf.)

tut,

Kenci Elg. 6 – Xota B **5** (Nazional A)
C.D. makax **5** – Lanbroa 0 (1. maila)
Uni Eibar-Ermua 3 – Lojantzi **5** (Jub.)

Sanlo Elg. **15** – Zarauz **19** (Senior nesk.)
Pagoaga Elg. **9** – Urdaibai **22** (Kad. nesk.)
Cometel Elg. **25** – Urdaibai **9** (Jub. nesk.)
Trapaga **27** – Tecnifuelle Elg. **24** (Sen. mut.)
Urdaneta **19** – Pneumax Elg. **22** (Jub. mut.)
Urdaneta **26** – Tecnomeca Elg. **25** (Kad. mut.)
Gatz museoa **28** – Gaur Elg. **21** (Jub. mut.)

HAUNDIko jokalarierregularrena 02/03

JOKALARIA	PUNTUAK
1-Elkoro	20
2-1. Gurrutxaga	17
3-Jakes	15
4-Gotzon	14
5-Igartua	12
6-Navarrete	11
7-Caro	9
8-Duarte	6
9-Izagirre	6
10-Leonardo	5
11-Arenas	5

AGENDA

Barixakua, 6

10:30 Elgoibar- Lagun-Onak (Inf.)
12:00 Elgoibar – A. Ondarroa (Jub.)
16:30 Haundi - Ordizia (Pref.)

Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga Kiroldegian. Hiru urtetik gorako haurrentzat eta helduentzat pentsatutako ikastaroak dira. Igerian hasiberrientzat edo hobetu nahi dutenei zuzenduta daude. Urtarrilaren 7an hasiko dira klaseak, baina ikastaroan izena ematea nahi dutenek abenduaren 1 2tik 20ra izango dute aukera kiroldegian bertan (telf: 943 74 44 15).

Kiroldegia itxita

Bestalde, ostirala, abenduak 6, eta igandea, abenduak 8, Olaizaga Kiroldegia itxita egongo da egutegian jai eguna izateagatik.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak makinista tridimensional behar du. Erref. 92644/2

Debabarreneko enpresak metalerako langilea behar du. Erref. 92949/1

Durangoaldeko enpresak garbitzaila behar du. Erref. 92926/1

Durangoaldeko enpresak erizaina behar du. Erref. 92925/1

Durangoaldeko enpresak erizain laguntzailea behar du. Erref. 92924/1

Durangoaldeko enpresak torneroa behar du. Erref. 92877/3

Durangoaldeko enpresak zuzendari komertziala behar du. Erref. 92748/1

Durangoaldeko enpresak ingeniari elektronikoa behar du. Erref. 92747/2

Durangoaldeko enpresak mantentmenturako arduraduna behar du. Erref. 92746/1

Durangoaldeko enpresak arotza behar du. Erref. 92735/1

Durangoaldeko enpresak delinea-tzailea behar du. Erref. 92536/3

Durangoaldeko enpresak ajustadorea behar du. Erref. 92534/3

Durangoaldeko enpresak altzari egile eta montadorea behar du. Erref. 92268/4

Bilboko enpresak SAP administradorea behar du. Erref. 92189/3

Zaldibarreko enpresak segurtasun arduraduna behar du. Erref. 92618/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

* Erizaina eskaintzen da pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. zr 652 76 86 73

Emakumea umeak edo adineko pertsonak zaintzeko prest. -8. 639 88 20 04

Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. zr 943 74 44 63

*Mutilak garbiketa lanak egingo lituzke. a 943 74 44 63

*Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldean. zr 943 74 38 94

ESKAINZA

Gasolineran mutil bat behar da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko. tr 943 74 02 41

Neska bat behar da arratsaldean umeak zaintzeko. v 943 74 04 46

Neska euskalduna behar da gabonetako kanpainan poltsa denda batean lan egiteko. Curriculum-a San Frantzisko kaleko 43an utzi.

Neska behar da orduka etxea garbitzeko. tr 666 68 05 50

*Pertsona bat behar da CNCko fresadoran lan egiteko. 1r 605 70 14 29

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Logela bat hartuko nuke alokairuan. Tr 699 91 31 69

Neska arduratsuak pisua hartuko luke alokairuan. Ahal bada amueblatuta. IT 659 51 57 41 (Begoña)

*Hiru edo lau hilabetetarako pisua hartuko nuke alokairuan. v 943 74 12 05/ 943 74 36 50

Larunbatetarako logela bat hartuko nuke alokairuan. a 658 74 55 23

Etxea salgai Kalamua 2, kalean. 100m². a. 649 25 90 51

Partikularrak

S Klase partikularrak ematen ditugu. v 616 05 99 86/625 42 05 49 (Olatz eta Bidatz)

Klaseak emango nizkieke 16 urte arteko umei. tr 943 74 27 78 (Saioa)

Salerosketak

♦ Ford Sierra XR 4X4 salgai. SS-9687-AM. Egoera onean. a 615 74 62 46

*Seat Ibiza Sport salgai. 1,6, 100cv. 10 hilabete. IT 620 28 21 23

Bi garbigailu eta hozkailua salgai. Egoera onean. tr 943 74 27 79

Telefono mugikorra salgai. Nokia 5510. MP3, irratia, aurikularrak eta internetetik musika jaisteko kableekin. 300 euro. Tr 629 43 47 97

Tresillo bat salgai. Egoera onean eta merke. a 660 22 40 35

♦ Kotxea salgai. Diesel. Merkea eta egoera onean. Extrekin. v 943 76 07 26 (lan orduetan) v 606 85 07 85

Kenwood KRC-179R radiocasset-a salgai. 40x4 watt. 5 preekualizazio, mute, 18 emisorako memoria. Karatula kengamia. Berria (bi hilabete), 90 watt-eko ALPINE bozgorailu. Tr 652 71 84 34

32 metroko garaje itxia alokatzen da Arregitorren. v 943 74 17 02 (J. Roque)

Garajea alokatzen da Pista Beitzetan. 943 74 29 38

Garajea hartuko nuke alokairuan Ikastola inguruan. zr 669 09 45 05

Bestelakoak

*Sofa eta salarako mahaia hartuko nuke. ?s- 606 70 99 23

Zilarrezko eratzun bat galdu dut Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean. Harri lila bat du. a 637 51 22 24

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Azkenen solairuan.
Tel. 943 741 461

Ordutegia:
Astelehen-astirala: 7:00-20:00
Larunbata: 10:00-14:00

Agurrak




♦ Zorionak losu, abenduaren 6an 22 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez.



♦ Zorionak Nerea Iraolari, abenduaren 10ean urtebete egingo duelako. Gurasoen eta senide guztien partez.




* Ne4a txakurtxo eta bere jabeen partez, Ion eta Guillermo Elgoibarko albaitariei agur bero bat, batez ere, Guillermoni joan zen azaroren 30ean bere urtebetzea izan zelako. Zorionak.




♦ Zorionak Iker Niebla Moronari, abenduaren 3an 3 urte bete zituelako. Familiakoan partez.



♦ Zorionak Naia, 2 urte!! Konturatu al zera zure urtebetetzian danak jai hartzen debela? Izan ere haundixa zera! Aittitte, amama eta tio.



• Zorionak Aitor Goikoetxeari, asteartean, hilaren 3an, 10 urte bete zituelako. Familiakoan eta bereziki anaia Ibonen partez.



• Zorionak Mari eta Haritzi, abenduaren 7an ezkontza eguna duzuelako. Guraso eta anaien partez, ondo pasa.

BEKAK

Informazio eta komunikazio teknologiak

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak "Informaziorako eta Komunikazioko Teknologietan prestatzeko bekak eskaini ditu. Unibertsitateko erdi-mailako edo goi-mailako titulua, edo Lanbide Heziketa zein LHII-ko titulazioa izatea eskatzen da. Epea: abenduak 12.

Ozeanografia titulua

Zientzia eta Teknologia Ministerioak antolatuta, Ozeanografiako Institutu Espainiarrean itsas-zientzietako gaietan ikerketako laguntzaile teknikoei prestakuntza praktikoa ahalbidetzeko 8 beka. Lanbide Heziketako teknikari espezialistaren titulua edo goi mailako teknikariaren titulua eskatzen da.

Euskaren ikerketa beka

Ordiziako Udalak, bertako hizkerari buruzko hizkuntzalaritza-ikerketa orokorra egiteko dirulaguntza eskaini du. Lanak taldeka zein banaka egin ahal izango da. Unibertsitateko ikasketak bukatuta edo bukatzeaz izatea eskatzen da. Epea: abenduak 13

IKASTAROAK

Astaldiko begiralea

Hezkide Eskolak "Astaldiko begiralearen ikastaroa" (I. Maila) antolatu du. 88 ordukoa otsailaren 22-23, martxoaren 8-9, 15-16, 29-30 eta maiatzaren 3-4, 10-11 izango da, larunbateko 9:45etatik igandeko 14:00ak arte eskolak Larraulen duen baserrian. Epea: otsailak 17.

Segurtasuna goi mendian

Gipuzkoako Goi Mendi Eskola "goi mendiko hastapen eta segurtasunari buruzko ikastaroa (elurretan) antolatu du. Epea: abenduak 6.

LEHIAKETAK

Morkaiko Mendizale Taldea

Urtero bezala, Morkaiko Mendizale Taldeak, mendiko argazki lehiaketa antolatu du. Lehiakide bakoitzak gaiarekin Iotutako 3 argazki aurkeztu ditzake. Epea: abenduak 12.

Literatura lehlaketa

Irungo Argoiak Elkarte Kulturalak XII. Literatura Lehiaketa antolatu du. Euskarazko nahiz gaztelaniarazko lanak aurkez daitezke (poesia, ipuina eta nobela). Epea: abenduak 15.

LANA

Eibarko Udala

Eibarko Udalean langile postu bat betetzeko deialdia. Deialdiaren oinarriak Informazio Bulegoko Erregistro Orokorrean (Portalea) jaso behar dira. Epea: abenduak 7.

Marrazketa eta pintura irakaslea

Eibarko Udalean marrazketa eta pintura irakasle lanpostu bat betetzeko deialdia. Oinarriak Portalean jaso behar dira. Epea: abenduak 7.

Albaitaritzan lizentziatuak

Nafarroako Gobernuak osasun publikoko 5 inspektore lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du Osasunbidean lan egiteko. Albaitaritzako lizentziatuta izatea eskatzen da. Epea: abenduak 12.

9 ASTELEHENA

**18:00 ERABILITAKO JOSTAILUAK
JASOTZEKO KANPAINA**
Gurutze Gorriko lokaletan, Plaza txikian

12 EGUENA

**13:00 NAZIOARTEKO XAKE
TXAPELKETAREN AURKEZPENA**
Kultur Etxean

13 BARIXAKUA

**19:00 GEMMA MONREAL EN
OLEO ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA**
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Abenduaren 31a arte



**19:00 MORKAIKO M.E.REN
ARGAZKI ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA**
Kultur Etxeko sotoan
Abenduaren 22ra arte

22.15 ANTZERKIA
Izenburua: "Punto.Rabo"
Taldea: Markeliñe
Herriko Antzokian



14 ZAPATUA

**' XVI. JAIOTZEN
LEHIAKETAREN IZEN EMATEA**
Parrokiko lokalean (Trenbide aldeko
sarreratik)

15 DOMEKIA

**11:00 XVI. JAIOTZA
LEHIAKETAREN ERAKUSKETA**
Parrokiko arkupeetan

20 BARIXAKUA

**20:00 MUSIKA ESKOLAKO
IKASLEEN GABONETAKO
KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian

**22.15 PARROKIKO JAIOTZAREN
INAUGURAZIOA**
Parrokiko kaperan



**22:00 GABONETAKO
BERTSOLARI GAZTEEN
JAIALDIA**

Arzallus, Colina, Iturriaga eta Silveira
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**ZINE
kluba**



"13 mismo amor la misma lluvia"

Zuzendaria: Juan Jose Campanella.

Antzezleak: Ricardo Darin, Soledad Villamil, Ulises Dumont.

Campanellak "El hijo de la novia" arrakastatsuen baina lehenago burututako produktua da honakoa. Antzele batzuk enepikatu egiten dute zinegile argentinarren aginduetara, Ricardo darin tartean, eta agian ageriko trama ezberdina izanik ere, badira zinegile honen konstante diruditen ideiak: giza duintasuna, konprometua maitasunean, lanean..., gatazka intelektuala, etikoa, esistentziala... Azken finean "betiko gaiak" modu umoretsu eta dinamikoan kontatuak.

thASTI°PnAK**Internet 50 urtetik gorakoentzat**

Elgoibarko KZ Guneak 50 urtetik gorakoentzat kurtso bereziak antolatu ditu. Kurtso hauetan Interneti buruzko ezagutza basikoak emango dira (web orriladeetan nabigatzea, informazioa topatzeko bideak, chat-a, posta elektronikoen erabilera...) Kurtso hauek informatika munduan batere ezagutzarik ez dutenentzako zuzenduak egongo dira. Lehen egunetik arratoia eta teklatura erabiltzen hasiko dira. Kurtsoak 5 egunetakoak dira, egun bakoitzean bi ordu hain zuzen ere. Kurtso hauen helburua **teknologi berrietara eta oraindik ordenagailuei "beldurra" dioten pertsonengana hurbiltzea** da. Abenduko lehen hamabostaldian izango dira kurtsoak, Gabonetako jaiekin bat egin ez dezaten. Orduetegi oso zabalak izango dira. Interesdun guztiak pasa daitezela edo dei dezatela: Merkatu plaza, 2. solairua. (943 74 88 28).

ERAKUSKETAK**Gemma Monrealen margo erakusketa**

Gemma Monreal margolari elgoibartarraren oleo erakusketa abenduaren 13tik 22ra bitartean izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketa amaren aldeko amonari eskaini nahi izan dio. "20 urte margotzen pasa ostean, erakusketa honekin nire amonaren oroimena omendu nahi izan dut. Urte guzti hauetan bizirik jarraitu du nigan eta babestu nauen izarra modukoa izan da". Guztira 30 oleo jarriko ditu ikusgai. Orduetegi: astegunetan: 19:00etatik 21:00etara. Jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara.

Argazki erakusketa

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatzen duen VIII. Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazkiak, sarituak barne, Kultur Etxeko sotoan ikusi ahal izango dira abenduaren 13tik 22ra bitartean. Orduetegi: astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Asteburuak: 12:00etatik 14:00etara.

IFHIAKETAK**Jaiotzen XVI. Lehiaketa**

Parrokiako Katekesiak, Jaiotzen XVI. Lehiaketa antolatu du Elgoibarko 14 urtetik beherako haur guztientzat. Gaia: Jesusen jaiotza. Materiala: nahi dena. Norberak egindakoak. Parrokiako arkupeetara eraman behar dira jaiotzak abenduaren 15ean (domeka) goizeko 11:00etarako. Partehartzaileek bezperan, abenduaren 14an, eman beharko dute izena Parrokiako lokalean (Trenbide aldeko sarreratik), 11:00etatik 13:00etara bitartean. Jaiotzak "Antxustegi" zeramika zegoen lokalean, Santa Ana kalean jarriko dira ikusgai.

KANPAINAK**Erabilitako jostailuak**

Gurutze Gorriak erabilitako jostailuak jasotzeko kanpaina jarriko du martxan abenduaren 9tik 13ra bitartean. Egoera onean dauden jostailuak jasoko dira, Erregetan beharra dutenen artean banatzeko. Gurutze Gorriko lokaletan, Aita agirre plazan utz daitezke jostailuak 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 943 74 38 64 telefonora dei eginaz.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian**"800 balas"**

6, barixakua: 22:15

7, zapatua: 19:30-22:15

8, domekia: 19:30-22:15

9, astelehena: 22:15

"Pastel magikoa" (euskaraz)

8, domekia: 16:30

"El mismo amor la misma lluvia" (Z.K)

10, martitzena: 21:30

12, eguena: 22:15

"El dragon rojo"

14, zapatua: 19:30-22:15

15, domekia: 19:30-22:15

16, astelehena: 22:15

"2 colgados en Chicago"

15, domekia: 16:30

"Nomadas del viento" (Z.K)

19, eguena: 22:15

BERGARA, Novedades

6, barixakua: 17:00

7, zapatua: 17:00

8, domekia: 17:00

"El crimen del padre Amaro"

6, barixakua: 19:30-22:30

8, domekia: 19:30-22:15

9, astelehena: 22:30

"Topeka"

11, Eguaztena: 20:00

BIRRF\ uk Ct

111C/kCcil 011.111;11dien

**"800 balas"**

Zuzendaria: Alex de la Iglesia.

Antzezleak: Sancho Gracia, Angel de AndHs, Carmen Maura. Almeriako desertua, 2002. urtea. Texas Hollywood mendebaldeko herrixka areatsua da. Urteak dira filmerik egiten ez dela, baina aktore asko bizi da bertan. Suerte handirik gabeko zine espezialista izandako Julian, adibidez. Nostalgiaz betetako hainbat aktore eta pertsonaia xeble bizi dira elkarrekin, indiarrez disfrazatutako ijito koadrila bat esaterako. Gerturatzen diren turista apurrei mendebaldeko bizimoduari buruzko antzezlanak, tiroketak, pertsekuzioak... eginge irabazten dute bizimodua.

N

m



A

ste honetako erretratu zaharra, Juani Bastidak laga digu. Ez dakigu zein urtetakoa den, baina argi eta garbi ikusten da zerbait ospatzen daudela, eta oso ondo pasatzen ari direla gainera.

Euskaldunongan ohikoa da ospakizunak jan-edanean egitea, eta

ikusten dugun bezala, aspaldiko ohitura dela esan dezakegu. Ikus dezagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Mahaiaren ezkerreko aldean: Agustin Iriondo "Sanson" (11), eta Boni Odria "Guenetxebarri" (t).

Mahaiaren eskumako aldean: Patxi Egaña "Mintxeta" (t).

H1 11.7%
TXEII

SANTA LUZIAKO MENUA
abenduak 13 eta 14



Zizka-mika hotzen dastaketa
rdaiazpikoa, zaiizzuriak, txorizoa,fbien)
Otarraixkak plantxa,•
Onddoak nahasturan
Itsaski-krema edo kontsomea
Lntrekota plantxan hornigaiareki,
Pantxineta izozki eta
txokolate beroarekin
ivafea, ogia eta urteko ardoa

Zuzeneko musika

abenduak 13, Roy strip-stease
abenduak 14, Drag Queen-a

Olaso Industrialdea • Olasope, 2 • TeL 943 74 12 44 • 20870 ELGOIBAR • (Gipuzkoa)

BASKO

Tel.: 902 103 287

**MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!**

GARBIKETA

2,50 €

**GARBIKETA
AUTOMATIKO PUBLIKOA**




**MANTENIMENDU OROKORRA • ORO, BAIAZTA
eta PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRAlA**

**GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA**

3,50 €

KONPONKETA TAILERRA



**GARBIKETA
BEREZIA**

4,50 €

**SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE**

sen^e_{1^o} wh.
MAHASTI



RIOJA *selección*

Aftdozateen txako txoko 6e7m:a akatu 71azan!

ARDOAK

- Benane kcothoniko enanct eūintko kentanna, engeseda, eggeseda hanla.
- San Asensto qonntak
- TxuRiak,



"SeñoRio de VillaRRica"

"Don FloRenTino"

"Delicia De Baco"

ibanno"

Cava "MliqUeT" BRUT NaTURE

Gabonetan ardo ona zuen mahaietan

Banatzaila: Jose Angel Zabala

Merkatu Plaza 30-33-34 zenb. Tef. 615 76 03 72

ELGOIBAR